

Ordainekorik mingarriena

Frantziak begirune guztia galdu zion Zeelanda Berriari, eta bigarren finala jokatuko du

Koldo Alduntzin / Donostia

EZ SINESTEKO garaipena lortu zuen igandean Frantziak Kopako bigarren finalerdian, Zeelanda Berriari 43-31 irabazita. Sinestezina, ez irabazi zuelako, irabazteko moduagatik baizik. Frantziak ehuneko ehun eta hogeita bostean bete zuen Zeelanda Berria menderatzeko egin behar zuena. Zeelandarrek, aitzitik, antolakuntzarik gabe, nekatuta eta ezinean jardun zuten; menderatuta.

Garaipenarekin, heldu den larunbateko finalera sartzeaz gain, aspaldiko ordainekorik mingarriena eman zioten frantziarrek All Blacks-*ei*. Gogoratu behar da 1987ko Mundialean —lehen Kopa— Zeelanda Berriak 29-9 irabazi ziola Frantziari, eta 1995az geroztik jokaturiko test-partidatan beti gailendu zela Zeelanda Berria. Urruti joan gabe, joan den ekainaren 26an 54-7 nagusitu ziren zeelandarrek, Wellingtonen. Hori gutxi balitz bezala, 1987ko txapeldunek Kopako astindurik handiena hartu zuten igandean.

Zeelandarrek Kelleher uztartze erdia zelairatu zuten Marshallen orde, horrek biko ona egin duenean Mehrteseekin. Lehen oren laurdean erakutsi zuen Frantziak nola jardungo zuen, han eta hemen izugarritzko presioa egin, baloiak bereganatu eta, ahal zuela, eskura jokatu. Bi taldeak parean aritu ziren, entsegu bana eginda. Lomu zeelandarrena txapela kentzekoa izan zen (24. m.) eta guk ikusitakorik ikusgarriena: Cullenek eman eta jasotzeko zaila zirudien baloia hartu eta dozena erdi bat kontrario gainditu zituen korrikaldi indartsua eginda.

Frantziak beste entsegu pare bat egiteko aukera ukan zuen; atsedenean 17-10 ziren. Bigarren zatian, Lomuk berriro entsegu ikusgarria eginda, 24-10 jarri ziren All Blacks-ak. Lamaisonek, ordea, 12 puntu egin zituen zortzi minututan, eta Dominici, Dourthe eta Bernat-Sallesen entseguetan, 24-43 aurreratu zen Frantzia. Wilsonen entsegu egin arren, ezinean aritu ziren All Blacks-ak.



Umaga Zeelanda Berrikoa —ganean— eta Ieremia Garbajosa frantziarra geratu ezinda.

Zeelandarrek arinki hartu zuten lehia

iritzia

ASIER ALTUNA •
Baionako jokalaria


Partida hasi aitzin arrazoi osoarekin kritikatu zuen mundu guztiak Frantziaren jokoa, eta normaltzat hartu behar da Zeelanda Berriaren aurka jipoi galanta hartuko zutela esatea. Izan ere, igandera arte erakutsitakoa ez zen batere ona izan: falta asko, erabakigarritasun gutxi jokaldietan eta segurtasunik gabe sartzerakoan. Ematen zuen elkarrekin ez zekitela jokatzen. Aitortu behar da, halere, Argentinaren kontra hobekuntza txiki bat izan zutela. Bestetik, ikusten zen Zeelanda Berriak izugarritzko partidak egin zituela, serio jokatuz, hankako joko apartarekin, gogor eta denak gogotsu. Horregatik, All Blacks erraz ariko zirela zirudien.

Igandean, ordea, frantziarrek nola irten ziren ikusita, txapela kentzekoa da: elkarrekin jokatuta, ikaragarritzko defentsa eginda eta presio itogarria eginda. Bigarren zatian ere, behera egin beharrean oraindik eta sutuagor jardun zuten; igandean behinik behin, ez zegoen munduan talderik menderatuko zuenik. Zeelanda Berria, aitzitik, itzalita ikusi nuen, izututa, erantzunik gabe. Aitzinean goseak jotako kontrarioak ikusi zituzten, berehala bizpahiru jokalaria frantziar zizutela etengabe ganean, defentsa goian egiten zutela, eta azkenean amore eman behar izan zuten.

Bestetik, iruditzen zitzaidan Zeelanda Berriak arinki hartu zuela norgehiagoka. Partida aitzineko astean, futbole-an jolasten jardun zuten, giro lasaiean igaro zuten, eta hainbat egunkarietan hainbat adierazpen egin zuten harroko xamarrek: «Egun ez dago inor mendera gaitzakeenik...», eta antzekoak.

Lomurekin gutxi jokatu izana egin zitzaidan harrigarri xamarra.

Koparen azkeneko fasea. Egutegia



Aldi baterako mintzagaia izango da

Sineskorrenek ere ez zuten sinesten Frantziak lorturikoa. Bernat-Salles (Miarritze) Frantziako jokalaria biarnesa dugu horren lekuko: «Ikaragarria da! Irabaztea pentsatzen genuen, baina ez horrela», adierazi zion telebistari, partida amaieran. John Hart entrenatzaile zeelandarrek, berriz, hau zion: «Frantziarrek ezin hobeto jokatu dute; imagina zitekeen baino hobeto».

Bigarren zatiko hogei minututan 0-33ko partziala lortu zuten frantziarrek, eta All Blacks-ek hutsak bata bestearen atzetik egiten jardun zuten. Skrela entrenatzaile frantziarrek hau zioen: «Jakina, inork ez zuen gugan sinesten, eta horrek motibatu gaitu ezustea emateko».

Zeelandarrek jota agertu ziren prentsaurrekora: «Huts gehiegi egin dugu. Presio izugarria egin digute 2. zatian. Konzentratuta geunden, baina antolatu gabe», zioen Randell kapitainak. Gauza bat argi dago; Koparen historian sartuko da partida.

Frantziako jokalaria guztien lana nabarmendu beharko genuke, baina Lamaison aipatzea derrigorrezkoa da. Briveko joko zabaltzaileak 28 puntu egin zituen, eta kasik denak une erabakigarrietan. Lehen zatian berak egin zuen frantziarren entsegu. Dominici egin zuen jokaldia, Cullen gaitu eta defentsa hautsita. Hirugarren entseguan ere, eskuhartze zuzena izan zuen, berak eman baitzuen erasoko ostikada ezustean, Dohurtek entsegu egiteko. Lamaison Baionan aritu zen orain dela lau sasoi.

Lamaisonek, 28 puntu eta partida aparta

Frantziako jokalaria guztien lana nabarmendu beharko genuke, baina Lamaison aipatzea derrigorrezkoa da. Briveko joko zabaltzaileak 28 puntu egin zituen, eta kasik denak une erabakigarrietan. Lehen zatian berak egin zuen frantziarren entsegu. Dominici egin zuen jokaldia, Cullen gaitu eta defentsa hautsita. Hirugarren entseguan ere, eskuhartze zuzena izan zuen, berak eman baitzuen erasoko ostikada ezustean, Dohurtek entsegu egiteko. Lamaison Baionan aritu zen orain dela lau sasoi.